

MIRU BELTZA, HARRAPARI OPORTUNISTA

Testua eta argazkiak: Joxe Ramon Aihartza

MARTXO aldean, eta udaberriko kolore berdeek eta bizi berriaren distirak Euskal Herriko lurraldeak janzten dituztenean, zilueta liraineko hegazti harrapari bat nagusitzen zaigu bertako zeruetan. Hegan doanean ilun ageri da, eta bere hegaldia lasaia da oso; planeatzailea. Ez du hegal-kolperik ematen ia. Bertara iritsi bezain laster gure mendi, larre eta ibai-ertzak hegaldi baxuan arakatzeari ekiten dio, behin eta berriro bere beharrak aseko dituen ehizakiaren bila bazterrak miatuz.

Miru beltza (*Milvus nigrans*) tamaina ertaineko harraparia dugu: 50-58 cm-ko luzera eta 110-150 cm-ko hegalzabalera ditu, eta bere pisua 700 eta 1100 g bitartekoa da. Hegazti bikain honek isatsa urkilatua du, baina ez miru gorriak (*Milvus milvus*-ek) adina. Gertu samarretik begiratzeko parada izanez gero ikus daitekeenez, burua argixeagoa du soina baino, eta kolore arre ilunez ildaskatua. Bizkarra eta hegal gainak ere arre ilunak ditu, eta sabel aldea berriz, argiagoa;

Miru beltzaren fitxa teknikoa eta Euskal Herriaren banaketa-mapa.

FITXA TEKNIKOA

MIRU BELTZA

ESPEZIEA:

Milvus nigrans

FAMILIA:

AKZIPITRIDOAK


ORDENA:

FALKONIFORMEAK

KLASEA:

HEGAZTIAK

BANAKETA-MAPA



Miru beltza oro har iluna da eta isats urkilatua du.

arre gorritzeta eta ilunez marraztua. Edonola ere, eta hegan doanean, itxura iluna —ia beltza— da nagusi, izena ere hortik datorkiolarik. Horrexegatik, bere moko beltzaren inguruan, aurpegiko ezkoa eta han-

Euskal Herriko Fauna

Miru beltza ehiztari kaxkarra delako, hilda edo hilzorian dauden jakiz elikatzen da gehienbat, sarraskijale izateko joera nabaria duelarik.



ketako kolore horia ikaragarri nabarmentzen dira.

Miru beltza hegazti oportunistea eta kosmopolita da. Bere banaketa geografikoari dagokionean, Europa, Asia, Afrika eta Australiako eskualde klimatiko gehienetan bizi dela esan daiteke. Banaketa zabal honen arrazoiatariko bat animalia-erikaduraren bidez da. Miru beltza batez ere ornodun txikiak elikatzen ditu, hildakotako animalia, eta bere ehizakia arrainak, igelak, sugeak, arratoiak, saguak, eta abar ditu. Dena dela, miru beltza ehiztari kaxkarra da, eta ondorioz bere jakiak hilda edo hilzorian aurkitzen ditu gehienbat, sarraskijale izateko joera nabaria izanik.

Miru beltzaren kasuan, ugal sasoian zehar sexuen arteko lan-banaketa nabaria da oso.

Gainera, miru beltzak sekulako trebetasuna du janari-eskuragarritasun handiko lekuak bilatzen. Horregatik, jaki-bilaketa sarritan errepidetan, ibai bazterretan, landa berezietan, eta beste leku jakinetan burutu ohi du, eta ez du leku berri-arakatuko, baldin eta ohizkoetan asetzen bada. Miru beltza aire-korronte txikiez baliatzen da ehi-

za-lurraldeak hegaldi baxuan planeatuz eginahal txikienik ere egin gabe gora eta behera korritzeko.

Animalia-erikaduraren elikagai-espektro zabala dela eta, eta lekuan lekuko eskaintzaren arabera, miru beltza batzuetan karraskari-ehiztari bikaina izaten da; bestetan arrain-sarraskijalea izango da batez ere, eta errentagarri gertatzen zaionean, zabortegietako "garbitzaile" fina ere izan daiteke. Bestalde, uda-bukararen matxinsalto- eta txixarra-ehiztari izatera alda daiteke; beti ere proteinak dituen edozer jateko gai bait da, jakia ugaria baldin bada behintzat.

Etologikoki bakarzalea den arren, baldintza ekologikoek —eta bereziki elikagaien eskuragarritasunak— baimentzen dutenean, miru beltza multzo handitan ager daiteke eskualde batean. Horregatik, mendi magal berean, eta metro gutxiko bidean hainbat habia ikus daiteke batera ugal sasoia iristen denean. Honelakoetan miru beltzak, jokabide lurraldekoak ageri ditu, baina hala ere nahikoa onartzen ditu espezie-kideak, baldin eta hauek habiaren ingurune hurbilnetara gerturatu ez badira.

Habia zuhaitzetan eraikitako zotzez eta adarrez osatutako egitura trinkoa izaten da, eta bertan paper, plastiko, zatar eta beste hainbat hondakin aurkitzen da sarritan. Miru beltzaren kasuan, ugal sasoian zehar sexuen arteko lan-banaketa nabaria da oso. Emea arrez zipristindutako 2-4 arrautza



Euskal Herriko Fauna

Martxo aldera, eta udaberriarekin batera, miru beltzak Afrikatik Euskal Herrira iristen zaizkigu habia egitera.



zuriren txitaketaz arduratzen den artean, arrak jakiak eskuratzen ibili beharko du, aldi berean habia inguruko lurraldea defendatuz. Lan-banaketa hau dela eta, eta bikotearen batasuna mantendu beharraren ondorioz, miru beltzen kasuan kopulak txitatze-garai osoan zehar gertatzen dira. Era berean, lurralde batean elikagai gutxi denean, edota arrak nahikoa jaki lortzen ez duenean, emearen eta txitoen beharrak asetzeko, polian-dria-fenomenoak ere gerta daitezke. Horrelakoetan eme berak bi edo hiru arrekin kopulatzen du, berarek ere txitoak hazten laguntzen dutelarik.

Arrautzen txitaketa 32 egunez luzatzen da, eta epe horren buruan jaioko diren txitoak lumaska zuriz jantzita munduratzen dira. Txitoak



Jaiotako txito gehienak hegatzeko prest egon ohi dira sei asteren buruan.



Miruz beltza hegazti oportunistak eta kosmopolita da. Bere banaketa geografikoari dagokionean, Europa, Asia, Afrika eta Australiako eskualde klimatiko gehienetan bizi dela esan daiteke.

zertxobait kozkortu artean, berarekin eta emearen elikadura, arraren eginkizuna izango da oraindik ere. Hirugarren edo laugarren astetik aurrera ordea, emea ere habiatik kanpora irteten hasten da, eta kumeen elikatze-lanak bien artean burutzen dituzte.

Hegazti hauen aukera trofikoaren zabaltasuna dela eta, txitoen artean ez da liskar eta lehiaketa handiegirik izaten, eta ondorioz, jaiotako txito gehienak hegatzeko prest egon ohi dira sei asteren buruan. Nolanahi ere, miru gazteek oraindik

beste hiruzpalau aste emanen dituzte habia inguruetan hegaka, uztaile aldera Afrikarantzko bidari ekin eta Sahararen hegoaldeko neguko lurraldeetara abiatu aurretik.

Euskal Herrian miru beltza habiagile arrunta da Araba osoan, eta bereziki Lautadan, Zadorra ibaiaren arroan eta Ebro inguruan. Kantauri aldean berriz, askoz ere urriagoa da, batez ere Bidasoaren itsasadarraren inguruan eta Lapurdin bizi delarik. Azkenik, Nafarroan eta Zuberoan ere ia nonnahi aurki daiteke, baina ugariena Nafarroako erdialdean eta Erriberan da. Espeziearen egungo egoerari dagokionean berriz, nahikoa ona dela esan genezake, honen arrazoi nagusiak, besteak beste, animalia-izaera oportunistak eta gizakiarekiko duen interferentzia eskasa direlarik.